(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Espainia nun ari zen gudan (gerlan)?
2. Nor zuen etsaia? Etsai hori azkarra zena?
3. Ainitz gizon galdu zituena ordean? Eta zer gehiago?

(II)

## Espainia

Azken bi aldietan aiphatu dugu nola gure buruzagiak, bai eta gure auzo herrialdetako buruzagiak oro gerlaren beldur diren. Erran dugu ere nondik eta nola dathorren beldur hori. Agian ez baita gerthatuko!

Espainiak aldiz badu aspaldi huntan gerlaren beldurra baino beltzagorik eta dorpeagorik jasaiteko. Habanako gerla izigarri hura neholere oraino ezin bururatuz lan ederretan da Espainia dohakabea. Etsai azkarra du garhaitzeko, eta bazterretarik azkarki lagundua dena, bai diruz bai eta buruz eta zango besoz.

Alta Espainiak ere ahalaz bere indar guziak dagizka[1], nahiz eho[2] eta zanpatu etsai hori. Laster[3] onik egin-araztcn ere badio aiari; bai ordean etsaiak ere españolari. Bi aldetarik anhitz gizon galtzen dute; ez baitezpada odol ixurtze handiak direlakoan[4]. Banazka, bi, hiru, seirazka, gorenik hogoirazka baizik ez omen da gizon hiltzerik, elgarri jazartzen diren aldi bakharretan. Halere aski... luzara!

Bainan gerlako tresnez baino anhitzez gehiago badoazi eritasunez eta nekheduraz. Artha guti baitukete alabainan, gau eta egun, leihorrez eta urez, elgarren ondotik dabiltzan gerlatiarrek. Nahi eta ez, laster higatzen dire gizonak, eta higa arau, bethi berritu behar, edo ukho egin. Zenbait mila gizon baditu Espainiak hor harat igorririk, itsasoaz haindirat; Jainkoak baitaki zenbatek han galduko duten bizia edo bederen osasuna.

Eta zer diru keta jadanik xahuturik, bai eta oraino xahutzen ari!

Aste guziez miliunka derabilate dirua; geroago eta nekezago, eta geroago eta nasaikiago[5].

IRIART URRUTY.

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

| | |
|---|---|
| 31. Dathorren | 32. Dagizka |
| 33. Badio | 34. Badoazi |
| 35. Baitukete | 36. Dabiltzan |
| 37 Derabilate | |

31. ETHORRI. Indicatif présent. Conjug. Forte

| | | IMPERATIF | |
|---|---|---|---|
| Ni nathor | = je viens | | |
| Hi hathor (m+f) | = tu viens | Athor | = viens |
| Vous zathozi | = vs venez | Zathozi | = venez |
| Hura dathor | = il vient | Bethor | = qu'il vienne |
| Gu gathozi | = ns venons | Gathozin | = Venons |
| Zuek zathozte | = vs venez | Zathozte | = venez |
| Hek dathozi | = ils viennent | Bethozi | = qu'ils viennent |

32. EGIN. Indicatif Présent. Conj. Forte.

| CDS | | CDP | |
|---|---|---|---|
| Nik dagit | = je le fais | N. dagizkit | = je les fais |
| Hik dagik/n | = tu le fais | H. dagizkik/n | = tu les fais |
| Zuk dagizu | = vs le faites | Z. dagizkitzu | = vs les faites |
| Hark dagi | = il le fait | H. dagizki | = il les fait = dagizka |
| Guk dagigu | = ns le faisons | G. dagizkigu | = ns les faisons |
| Zuek dagizue | = vs le faites | Z. dagizkitzue | = vs les faites |
| Heiek dagite | = ils le font | H. dagizkite | = ils les font |

33. UKAN: Conj. à dble cplt Indic. Présent.

| CDS | Hari = à lui | C.I.S |
|---|---|---|
| Nik diot | = je le lui ai | Conj. Périphrastique |
| Zuk diozu | = vs le lui avez | Emaiten diot |
| Harek dio | = il le lui a | je le lui donne |
| Guk diogu | = ns le lui avons | Eman diot |
| Zuek diozue | = vs le lui avez | je le lui ai donné |
| Heiek diote | = ils le lui ont | |

.. JOAN. Indicatif.

| Présent. | | Imparfait. | |
|---|---|---|---|
| Ni noa | = je vais | N. nindoan | = j'allais |
| Hi hoa | = tu vas | H hindoan | = tu allais |
| Zu zoatzi | = vs allez | Z zinoatzin | = vs alliez |
| Hura doa | = il va | H zoan | = il allait |
| Gu goatzi | = ns allons | G ginoatzin | = ns allions |
| Zuek zoazte | = vs allez | Z zinoazten | = vs alliez |
| doatzi | = ils vont | H. zoatzin | = il allait |